GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUAREN, KABIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOAREN ZENTROETARAKO OHEAK ETA OSAGARRIAK HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA (ESP.: X22015)

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren objektua da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren, Kabia erakunde autonomoaren eta Uliazpi erakunde autonomoaren mendeko egoitza zentroetarako oheak eta osagarriak hornitzea.

Kontratazioa esparru-akordio gisa izapidetuko da, hiru erakunde hartzen baititu barnean, eta esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean erakunde horiek beharko dituzten hornidurak sartu nahi dira. Hala, kontratazioa izapidetzean, ezin da zehatz-mehatz jakin zenbat artikulu beharko diren eta, beraz, adjudikazioa prezio unitarioen bidez egingo da, eta hornidura bakoitza unean-unean zehaztuko da, beharraren eta aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera.

Esparru-akordioa bi sortatan banatuko da, eta sorta bakoitzeko eskaintza bakarra hautatuko da. Baldintza guztiak finkatuta geratuko dira, eta ez da bigarren lizitaziorik egin beharko esparru-akordioan oinarritutako kontratuak adjudikatzeko, hornidura eskaeren bidez jakinaraziko baitira.

2.- HORNITU BEHARREKO ARTIKULUAK

Hauek izango dira hornitu beharreko artikuluak:

1. SORTA: OHEAK, KOLTXOIAK ETA BURKOAK
OHEA
Oheak somier artikulatu motorduna izango du: lau plano, oheburua, ertz biribilduak dituen ohe-oina, material gogorreko baranda eraisgarriak, **19/25 eta 75/85 cm** arteko altuera, motor bidez erregulagarria, eta gurpil birakariak aldibereko balaztatzearekin. Ohearen neurriak: 90 x 190 cm 90 x 200 cm 100/105 x 190 cm 100/105 x 200 cm
OHE BEREZIA
Oheak somier artikulatu motorduna izango du: lau plano, oheburua, ertz biribilduak dituen ohe-oina, **7 eta a 64/85** arteko altuera, motor bidez erregulagarria, eta gurpil birakariak balaztekin. Aukerakoa: material gogorreko baranda eraisgarriak Ohearen neurriak: 90 x 200 cm
OHE BARIATRIKOA
Ohe elektriko bariatriko artikulatua: 4 plano, 3 artikulazio, oheburua eta ohe-oina

zurezkoak edo antzekoak, eta material gogorreko baranda tolesgarriak eta eskutagarriak; elektronikoki erregulatu daiteke altuera, kable bidezko agintearen bidez. Gurpil birakariak, balazta independentearekin. Pazientearen gehieneko pisua: 210 kg Ohearen neurriak: 120 x 200

KOLTXOI BARIATRIKOA

HR aparrezko koltxoi biskoelastiko bariatrikoa eta biskoelastikoa. Zorro ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria,
eta jostura zigilatuak eta kremailera babestuta dituena.
Pazientearen gehieneko pisua: 210 kg Neurriak: 120 x 200 x 20 cm.

ERORIKOETATIK BABESTEKO KOLTXONETA

Erorikoetatik babesteko alfonbra. Alakatutako ertzak muturretan, oztopo izan ez dadin erabiltzailearentzat edo zaintzailearentzat eta ohe ondoan 24 orduz egon ahal izan dadin.
Gutxi gorabeherako neurriak: 180 (luzera) x 90 (zabalera) x 1 (altuera) cm.

KOLTXOI BISKOELASTIKOA

Koltxoi biskoelastikoa: azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigilatuak eta kremailera babestua dituena.
Neurriak:
90 x 190 cm
90 x 200 cm
100/105 x 190 cm
100/105 x 200 cm

BURKOA

Zuntz bikoitzeko burkoa zorroarekin, gehi poliuretanozko burko-zorroa, ehun garbigarria, iragazgaitza, transpiragarria eta suaren aurkakoa (zuria).
Neurriak:
90 x 40 cm.
100/105 x 40 cm
120 x 40 cm.

2. SORTA: ESKAREN AURKAKO KOLTXOI MOTORDUNA

ESKAREN AURKAKO KOLTXOI GAIN MOTORDUNA, I. GRADUA

PVC sanitarioko koltxoi gaina + konpresorea. Presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko sistema (I. gradua), ohiko koltxoiaren gainean jartzeko koltxoi gaina eta konpresorea dituena. Egokia da eskarak izateko arrisku ertain-txikia dutenentzat. Gutxi gorabeherako neurriak: 90 x 190 mm.

ESKAREN AURKAKO KOLTXOI GAIN MOTORDUNA, II. GRADUA

Eskaren kontrako aire-koltxoia, gelaxka txandakatuekin, eskarak prebenitzeko eta tratatzeko egokia (II. gradua) gehi konpresorea, presioak eragindako ultzerak agertzeko arrisku ertaina duten pazienteentzat gomendatua. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa,

transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigilatuak eta kremailera babestua dituena. Gutxi gorabeherako neurriak: 90 x 190 mm.

ESKAREN AURKAKO KOLTXOI MOTORDUNA, III. GRADUA

Eskaren kontrako aire-koltxoi osoa, gelaxka txandakatuekin, presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko egokia (III. gradua) gehi konpresorea, eskarak izateko arrisku handia duten pazienteak. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigilatuak eta kremailera babestua dituena. Gutxi gorabeherako neurriak: 90 x 190 mm.

ESKAREN AURKAKO KOLTXOI MOTORDUNA, IV. GRADUA

Koltxoi egokia da presioak eragindako ultzerak agertzeko arrisku oso handia duten pazienteentzat (UPP), bai eta IV. gradura arteko UPPak tratatzeko ere + konpresorea. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigilatuak eta kremailera babestua dituena. Gutxi gorabeherako neurriak: 90 x 190 mm.

3. SORTA: ESKAREN AURKAKO KOLTXOIAK, MOTORRIK GABEKOAK

ESKAREN AURKAKO KOLTXOIA, MOTORRIK GABEKOA, III. GRADURA ARTE

Eskaren aurkako koltxoia, presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko egokia (III. gradura arte), eskarak izateko arrisku handia duten pazienteentzat.
Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigilatuak eta kremailera babestua dituena.
Jasan dezakeen pisua: 140 kg arte
Neurriak:
90 x 190 cm
90 x 200 cm
100/105 x 190 cm
100/105 x 200 cm

ESKAREN AURKAKO KOLTXOIA, MOTORRIK GABEKOA, IV. GRADURA ARTE

Eskaren aurkako koltxoia, presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko egokia (IV. gradura arte), eskarak izateko arrisku handia duten pazienteentzat. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigilatuak eta kremailera babestua dituena.
Jasan dezakeen pisua: 150 kg arte
Neurriak:
90 x 190 cm
90 x 200 cm
100/105 x 190 cm
100/105 x 200 cm

ESKAREN AURKAKO KOLTXOI HIBRIDOA, MOTORRIK GABEKOA, IV. GRADURA ARTE

Eskaren kontrako koltxoi hibridoa, aire-gelaxkak eta aparra edo antzekoa dituena,

presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko gomendatua (IV. gradura arte), eskarak izateko arrisku oso handia duten pazienteentzat. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigilatuak eta kremailera babestua dituena.
Jasan dezakeen pisua: 250 kg arte
Neurriak:
90 x 190
90x200
100/105x190
100/105x200

4. SORTA: GAU-MAHAIAK

GAU-MAHAIA

Gau-mahaia, 400 x 400 x 760 mm ingurukoa.

- Zur trinkozko egitura
- Gutxi gorabehera 19 mm-ko panel geruzatua
- Metalezko gidariaren bidez irekitzeko sistema duen tiraderarekin
- Beheko armairua, ate eraisgarriarekin
- Ertz biribilak gau-mahai buelta osoan.
- Helduleku ergonomikoak, material aldagaitzez eginak, akabera kromatuarekin.
- Hautazkoa: 50 mm-ko diametroa duten gurpilak, iraultzearen kontrako balaztarekin

GAU-MAHAIA PALAREKIN

Gau-mahaia, 400 x 400 x 760 mm ingurukoa.

- Gau-mahai alderantzikagarria, mahai lagungarri eta guzti.
- Zur trinkozko egitura
- Gutxi gorabehera 19 mm-ko panel geruzatua
- Metalezko gidariaren bidez irekitzeko sistema duen tiraderarekin
- Beheko armairua, ate eraisgarriarekin
- Ertz biribilak gau-mahai buelta osoan.
- Helduleku ergonomikoak, material aldagaitzez eginak, akabera kromatuarekin
- 50 mm-ko diametroa duten gurpilak, iraultzearen kontrako balaztarekin

Eskainitako prezioan altzariak garraiatu, deskargatu, banatu eta instalatzea sartuko da, baita enbalaje-hondarrak kentzea eta baimendutako gune garbietan uztea ere, eta, hala badagokio, altzari zaharrak kentzea eta baimendutako gune garbietara eramatea ere.

Enpresek deskontua ere eskainiko dute PSPren gainean, aurreko zerrendan zehaztu ez diren baina beharrezkoak diren gamako beste altzari batzuk hornitzeko.

3.- ENTREGATZEKO EPEA

Entrega epea 6 astekoa izango da artikulu güztietarako.

4.- HORNITU BEHARREKO ELEMENTUEN BALIOESPENA

ELEMENTUAK	2022	2023	2024	2025
1. SORTA				
OHEAK 90	713	568	7	2
OHEAK 100/105	8	69	30	67
OHE BEREZIA 7 CM	5	4	4	5
OHE BARIATRIKOA	5	5	5	5
KOLTXOI BARIATRIKOA	5	5	5	5
KOLTXONETA-ERORKETAK	66	66	6	6
KOLTXOIAK 90	718	622	11	7
KOLTXOIAK 100/105	8	91	30	67
BURKOAK 90	718	617	11	6
BURKOAK 100/105	8	69	19	67
BURKOAK 120	5	5	5	5
2. SORTA				
ESKAREN AURKAKO KOLTXOI GAINA, I. GRADUA	23	23	3	3
ESKAREN AURKAKO KOLTXOI GAINA, II. GRADUA	38	38	5	5
ESKARA AURKAKO KOLTXOIA, III. GRADUA	8	8	1	1
ESKAREN AURKAKO KOLTXOIA, IV. GRADUA	8	8	1	1
3. SORTA				
ESKAREN AURKAKO KOLTXOIA, MOTORRIK GABEKOA, III. GRADUA	70	70	10	10
ESKAREN AURKAKO KOLTXOIA, MOTORRIK GABEKOA, IV. GRADUA	30	30	10	10
ESKAREN AURKAKO KOLTXOI HIBRIDOA, MOTORRIK GABEKOA, IV. GRADURA ARTE	30	30	10	10
4. SORTA				
GAU-MAHAIAK	184	206	17	33
GAU-MAHAIAK PALAREKIN	269	283	13	29

Donostian, 2022ko abuztuaren 11n
ZERBITZU OROKORRETAKO BURUA
Sin.: Francisco José Pérez Domingo